

## **2016-2019 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA**

### **ATARIKOA**

Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: *"administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatuko duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituztela horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea".*

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Diru Laguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Diru Laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailen igoeran.

Zentzu horretan, diru laguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distortsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko Diru laguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori hainbat urtetarako izan beharko da, diru laguntzak sortu aurretik egin beharko da, eta beharrezko izan daitezkeen azterketak egin beharko zaizkio urtero.

Horregatik, Udal honek Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Planak ondorengo artikulua ditu:

Plan estrategiko hau Eskoriatzako Udalean diru laguntzak kudeatzeko ardura duten arlo, zerbitzu eta unitate guztien parte hartzearekin egin da.

## **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Izaera juridikoa**

Diru Laguntzen Plan Estrategikoak programa izaerako kudeaketa tresnak dira, lege mailarik ez dutenak, ez dutenak eragin zuzenik partikularren eremuan, eta horiek onartzeak ere ez ditu eskubiderik ez betebeharririk sortzen administrazioarentzat.

Beraien eraginkortasuna dagozkion oinarriak eta diru laguntza lerroen deialdiak onartzearen menpe dago, eta baita ekitaldi bakoitzean aurrekontua izateari ere.

### **2. artikulua.**

Eskoriatzako Udalak 2016-2019 aldian emango dituen diru laguntzak bat etorriko dira Diru Laguntzen Lege Orokorrarekin, Plan honekin, dagozkion hitzarmenekin eta diru laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarriekin.

Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko organo eskuduna Udalbatzarra da, diruz lagundu edo sustatu beharreko jardura estrategikoki planifikatzeko eta kudeaketa ekonomikorako tresna baita, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 127. artikuluko g) puntuan aurreikusitakoaren arabera.

### **3. artikulua. Eremu subjektiboa**

Eskoriatzako Udaleko Diru Laguntzen Plan Estrategiko honek Eskoriatzako Udalak bere arloetatik ematen dituen diru laguntzak hartzen ditu barne.

Eskoriatzako Udalak diru laguntzak emango dizkie pertsonei, elkarteei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

Diru laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

### **4. artikulua. Planaren alderdi estrategikoak**

#### 4.1.- Misioa

Udalaren diru laguntza jardueraren izateko arrazoia honako hau da:

"Gure herriko gizarte zibil egituratuaren parte hartzea bultzatzea, sustatzea eta indartzea elkarren interesak biltzen diren udal kudeaketako eremuetan, eta, aukera berdintasunaren printzipioa babestearen alde, zenbait gizarte-kalteberatasun egoeratan dauden herritarrei diru laguntzak ematea horien gizarteratzea sustatzeko.

#### 4.2.- Printzipio orokorrak.

Diru laguntzen eta administrazio publikoen erregulazio juridikoak jarduera printzipio orokor batzuk eskatzen ditu, Plan Estrategikoaren oinarritzko elementuak direnak eta diru laguntza arloko udal kudeaketa arautu behar dutenak.

- 1 a) Publizitatea eta lehiakortasuna aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiari, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.
- 2 b) Objektibitatea funts publikoak esleitzeko prozesuan.
- 3 c) Herritar guztiak, sektore guztiak eta talde guztiak berdin tratatzea eta bereizketarik ez egitea.
- 4 d) Gardentasuna baliabide publikoak emateko prozesuan, bai ematerakoan bai emaitzak argitaratzerakoan.
- 5 e) Helburuak eraginkortasunez betetzea, emandako diru laguntzen jarraipena eta kontrola egiteko prozedura ezarri.
- 6 f) Eraginkortasuna baliabide publikoak esleitzerakoan eta erabiltzerakoan, diru laguntzak baloratuz eta proiektu eraginkorreni esleituz.

#### 4.3.- Helburu orokorrak.

2016-2019 ekitaldietarako Plan Estrategiko honen eta Eskoriatzako Udalaren laguntza eta diru laguntza lerroen helburu orokorrak honako hauek dira:

- 1 Diru laguntzak eman aurretik udalei dagokion plan estrategikoa onartzera behartzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan jasotako legezko agindua betetzea.
- 2 Eskoriatzako Udalaren laguntza eta diru laguntza lerro eta programa guztietarako printzipio eta exekuzio oinarri komunak ezartzea eta normalizatzea.
- 3 Diru laguntzen udal kudeaketa hobetzea eta arrazionalizatzea diru laguntza lerroen kudeaketan zeharkakotasuna, efikazia eta eraginkortasuna baloratuz.

#### 4.4.- Jarduera lerro estrategikoak 2016-2019.

Udalaren diru laguntza lerroak jasotzen dituen Plan Estrategiko honetan jasotako jarduera lerro estrategikoak honako hauek dira:

- 1. lerro estrategikoa: kultur dinamizazioa.
- 2. lerro estrategikoa: kirol sustapena.
- 3. lerro estrategikoa: gizarte ekintza.
- 4. lerro estrategikoa: Alkatetza.
- 6. lerro estrategikoa: euskararen sustapena.
- 7. lerro estrategikoa: hezkuntzaren sustapena.

- 8. lerro estrategikoa: ekonomiaren eta gizartearen sustapena
- 9. lerro estrategikoa: landa guneen sustapena.

Lerro bakoitzerako aurreikusitako kopuruak urteko Udal aurrekontu bakoitzean jasotakoak dira.

Jarduera lerro zehatz horien indarraldia aurrekontu ekitaldi bakoitzerako lerro horiek urteko aurrekontuan onartzearen eta horientzako diru izendapenak egitearen menpe geldituko dira eta horrek mugatuko ditu.

### **5. artikulua. Diru laguntzak emateko prozedura.**

Diru laguntzak eta laguntzak emateko ondorengo prozedurak aurreikusten dira diru laguntza mota bezala:

1. Norgehiagoka erregimenean emandako diru laguntzak.
2. Aurrekontuan aurreikusitako diru laguntza izendunak.
3. Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioengatik edo deialdi publikoa egitea zailtzen duten behar beste justifikatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean emandako diru laguntzak.
4. Lege mailako arauen batek hala ezarrita, Eskoriatzako Udalak eman beharreko diru laguntzak edo diru kopurua.

Orokorrean, diru laguntzak norgehiagoka erregimenean emango dira. Horretaz gain, udal aurrekontuetan izendun bezala agertzen diren diru laguntzak laguntza zuzen bezala eman ahal izango dira, eta diru laguntzaren izaeraren, presaren edo interes publikoaren arabera diru laguntzak emateko bestelako prozeduraren bat behar den kasuetarako, prozedura horiek erabili ahal izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera, aurrez justifikatu ondoren.

Diru laguntza oinarrietan bertan arautzen den diru laguntza lerro bakoitzerako egokia den prozedura jaso beharko da.

### **6. artikulua. Exekuzio epeak.**

Orokorrean, udalak emandako diru laguntzak urtean exekutatu beharko dira, eta horiek justifikatzeko aldia urte naturala izango da.

Egoerarengatik urtetik gorako exekuzio epea finkatzea edo diru laguntzak justifikatzeko aldia aldatzea komenigarri den kasuetan, diru laguntzen oinarritan jaso beharko da.

### **7. artikulua. Finantzazioa.**

Plan honetan sartutako laguntza eta diru laguntza lerroen eraginkortasuna dagokion urteko aurrekontuan kreditu egokia eta behar bestekoa egoteari baldintzatuta geldituko da.

Edozein diru laguntza eman aurretik, dagokion gastu baimena tramitatu beharko da.

## **8. artikulua. Emandako diru laguntzak aurrez ordaintzea.**

Diru Laguntzen Lege Orokorreko 34. artikulua honako hau jasotzen du: *Aurretik ere ordain litezke kantitate batzuk ziurtagiriak aurkeztu baino lehen, diru laguntzaren helburu diren ekintzak gauzatzeko ezinbesteko finantzabide moduan. Aukera hori eta berme erregimena berariaz aurreikusi beharko dira diru laguntza arautzeko araudian.* Beraz, deialdietako oinarrietan eta udal aurrekontuetan izendun diru laguntzarako egindako hitzarmenetan -diruz lagundu beharreko proiektu motaren finantzazio beharren, diru laguntzaren jasotzaileen eta jarduera publiko guztiak arautu behar dituzten efikazia eta eraginkortasun printzipioen arabera- ordainketak aurrez egiteko aukera ezarri ahal izango dira behar bezala arrazoituta.

## **9. artikulua. Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren kontrola eta jarraipena.**

Eskoriatzako Udalaren Diru Laguntzen Plan Estrategiko honen kontrola eta jarraipena urtero egingo da, bi alderdietatik:

Emandako diru laguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa, Kontuhartzaitzaren ardurapekoa, eta indarrean dagoen legerian eta Udalaren aurrekontu exekuzio araudian jasotako balditzetan egingo dena.

Planaren kontrola eta jarraipena, diru laguntzak ematen dituzten arlo bakoitzeko teknikari arduradunak egin beharrekoa. Diru laguntzak eman ondorengo ekitaldiko lehenengo lauhilekoan txosten justifikatzailea aurkeztu beharko da honako hauek zehaztuz:

1. Lerro eta diru laguntza mota bakoitzari buruzko informazioa. Bertan jasoko dira emandako diru laguntzak, justifikatutakoak, uko egindakoak eta itzulitakoak (edo itzultzeko bidean daudenak).
2. Helburu zehatzen eta horien lorpen epearen betetze maila
3. Eragin nahi izan den errealitatean izan duen eragina eta ondorioak.
4. Ondorioak edo balorazio orokorra.
5. Diru Laguntzen hurrengo Plan Estrategiko egiteko iradokizunak.

## **10. artikulua. Eskumen-tituluak.**

Lerro estrategiko bakoitzean agertzen diren eskumen-tituluak ulertu behar da baldintzatuta daudela Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen erregelamenduaren garapenak eta erkidegoak garatutako legeriak horiei buruz ezarritako gaikuntzara.

Horretarako, kontuan izan beharko da Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean -Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak egindako aldaketen ostean- ezarritakoa. Honela gelditu da 7. artikulua:

*Toki-erakundeen eskumenak berezkoak edo eskuordetzan emandakoak dira.*

- 2 *Udalerrri, probintzia, uharte eta gainerako lurralde-mailako toki-erakundeen berezko eskumenak legez baino ezin izango dira zehaztu. Haien autonomiaz eta beren erantzukizunpean erabiliko dituzte beren eskumenak, betiere haien programatu eta gauzatzeko gainerako herri-administrazioekiko behar bezalako koordinazioa kontuan hartuz.*
- 3 *Dagozkien eskumenen esparruan, Estatuak eta autonomia-erkidegoek beren eskumenak eskuordetu ahal izango dizkiete toki-entitateei. Eskuordetutako eskumenak eskuordetze-erabakian edo -xedapenean zehaztutako terminoetan gauzatuko dira, dagokion moduan; betiere 27. artikuluan zehaztutako arauetarako kalterik egin gabe, eta zuzendaritza eta egokiera nahiz eraginkortasuna zaintzeko teknikak aurreikusiko eran.*
- 4 *Udal-ogasunaren finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez denean eta beste herri-administrazio batekin zerbitzu publiko bera aldi berean gauzatzen ez den kasuetan bakarrik erabili ahal izango dituzte norbere eskumenak ez diren eta delegazioz esleitu ez dizkieten eskumenak, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legedian jasotzen denari jarraiki. Ondorio horietarako, beharrezkoak eta lotesleak izango dira: alde batetik, arloan eskumena duen administrazioaren txostenak, non adieraziko baita ez dagoela bikoiztasunik; eta bestetik, eskumen berrien finantza-iraunkortasunaren finantza-tutoretza esleitu zaion administrazioaren txostena. Edonola ere, eskumen horiek Estatuaren eta autonomia-erkidegoen legedian aurreikusitako terminoetan gauzatuko dira.*

25. artikulua honela gelditzen da:

- 1 *Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduerak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko eskaini ditzake, artikulua honetan aurreikusitako terminoetan.*
- 2 *Udalerrriak, beti, Estatuak eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu eskumen propio bezala:*
  - a) *Hirigintza: hirigintza-antolamendua, -kudeaketa, -egikaritza eta -diziplina. Ondare historikoaren babesa eta kudeaketa. Babes publikoko etxebizitzaren sustapena eta kudeaketa, finantza-iraunkortasunerako irizpideekin. Eraikuntza mantentzea eta birgaitzea.*
  - b) *Hiri-ingurumena: batik bat parke eta lorategi publikoak, hiriko hondakin solidoen kudeaketa, eta hiri-eremuetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa.*
  - c) *Edateko uraren etxeko hornidura eta hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua.*
  - d) *Bide-azpiegiturak eta bere titulartasuneko beste ekipamendu batzuk.*
  - e) *Gizarte-premia duten egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta.*
  - f) *Tokiko polizia, babes zibila, suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea.*
  - g) *Trafikoa, ibilgailuen aparkalekua eta mugikortasuna. Hiri-garraio kolektiboa.*
  - h) *Tokiko jarduera turistiko interesagarriaren informazioa eta sustapena.*
  - i) *Azokak, hornidurak, merkatuak, lonjak eta kale-merkataritza.*

- j) Herri-osasungarritasunaren babesa.
- k) Hilerriak eta hileta-jarduerak.
- l) Kirolaren eta kirol-instalazioen nahiz aisialdirako instalazioen sustapena.
- m) Kulturaren eta kultura-ekipamenduen sustapena.
- n) Nahitaezko eskolatzeta betetzeko zaintzan parte hartzea, eta kasuan kasuko hezkuntza-administrazioekin lankidetzan jardutea, ikastetxe berriak eraikitzeko beharrezkoak diren orubeak lortzeko. Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza edo hezkuntza bereziko zentro publikoetara xedaturiko toki-titulartasuneko eraikinen kontserbazioa, mantenua eta zaintza.
- ñ) Udalerrian bertan, herritarrek informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera eraginkorra eta jasangarrian parte hartu dezatela sustatzea.

- 3 Artikulu honetan adierazitako gaien udal-eskumenak Lege bidez zehaztuko dira; beraz, tokiko zerbitzuak ezartzearen komenigarritasuna ebaluatu behar da, deszentralizazioaren, eraginkortasunaren, egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak aintzat hartuta.
  - 4 Aurreko paragrafoan aipatzen den Legearekin batera memoria ekonomiko bat egin beharko da; eta bertan, eragindako herri-administrazioetako finantza-baliabideetan izan duten inpaktua islatu beharko da, zerbitzuaren edo jardueraren egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta zerbitzu- edo jarduera-eraginkortasunaren printzipioak betetzen diren ala ez zehazteaz gain. Behar diren baliabideen zuzkidura aurreikusi beharko du legeak, toki-entitateen finantza-nahikotasuna bermatzeko; dena den, hark ez du, inola ere, herri-administrazioen gastua handituko. Estatuko lege-proiektuekin batera Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren txosten bat aurkeztu beharko da: eta, bertan, arestian aipatutako irizpideak egiaztatu beharko dira.
  - 5 Legeak dagokion udal-eskumena zehaztuko du, eskumen bera aldi berean beste herri-administrazio bati esleitzen ez zaiola bermatuz. Eta 57 bis honako hau jasotzen da:
- 57 bis artikulua. Eskuordetutako eskumenen ordainketa bermatzea.
- 1 Autonomia-erkidegoek eskumenak eskuordetzen badituzte edo lankidetzahitzarmenak sinatzen badituzte toki-entitateekin, eta haren eraginez autonomia-erkidegoen kargura egin beharreko ordainketa-konpromisoak edo finantza-betebeharrak sortzen badira, konpromiso horiek behar bezala betetzen direla bermatzeko klausula bat jaso beharko dute erkidegoek. Klausula horretan baimena emango zaio Estatuko Administrazio Orokorrari atxikipenak aplikatzeko bere finantza-sistema aplikatzeagatik dagozkion transferentzietan. Klausula horretan beti zehaztuko dira hitzemandako ordainketak egiteko epeak, toki-entitateak erreklamazioak egiteko epeak –autonomia erkidegoak bere gain hartutako betebeharra betetzen ez badu–, eta Estatuko Administrazio Orokorrari betebeharrak ez bete izana jakinarazteko epeak; dena den, artikuluko honetako 3. paragrafoan aipatzen den Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren Agindu bidez zehaztu litekeen epea hartu beharko da kontuan. Klausula hori aplikatzeko ez da beharrezkoa izango aldez aurretiko baimena izatea, hau da, Estatuaren 2013. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hirurogeita hamabigarren xedapen gehigarrian aipatzen den baimena izatea.

- 2 *Arau hau indarrean sartzean denboraldi zehatz baterako –espresuki edo isilbidez– luzatu diren eskumenak eta lankidetzaz-hitzarmenak eskuordetzeko erabakiak aurreko paragrafoan aipatu den bermearen klausula gaineratzen den kasuetan bakarrik luzatu ahal izango dira berriz. Indarrean sartu eta lehen aldiz –espresuki edo isilbidez– luzatu daitezkeen erabakien kasuan bakarrik izango da aplikagarria arau hau.*
- 3 *Aurreko 1. paragrafoan adierazitako atxikpenak aplikatzeko prozedura eta autonomia-erkidegoei atxikitako funtsak toki-entitateen eskura jartzeko prozedura honakoak arautuko du: Estatuaren 2013. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hirurogeita hamabigarren xedapen gehigarrian jasotzen den Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren Agindua.*

### **11. artikulua. Gardentasuna.**

Lerro estrategiko, laguntza programa eta deialdi bakoitzean Udalak emandako diru laguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean, bertan adieraziz laguntzak nork jasotzen dituen, diru laguntzaren zenbatekoa eta zer proiekturako edo ekintzarako eman den.

Eskoriatzako Udalak diru laguntzak eman ondoren, eta gehienez ere hilabeteko epean, diru laguntza guztiak argitaratuko dira udal webgunean (edo, hala bada, udalaren gardentasun atarian), eta edozein modutan ere, urte amaieran webgunean argitaratuta egon beharko dira.

### **12. artikulua. Jarduera lerro estrategikoak.**

Plan honen eranskin gisa jasotzen dira udal laguntzen lerro zehatzak dagozkion lerro estrategikoetan bilduta beraien helburu estrategikoekin eta helburu zehatzekin, eta baita horien gainerako ezaugarriak eta 2016ko ekitaldirako hasieran aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa.



## **ERANSKINA**

### **LERRO ESTRATEGIKOAK, HELBURU ZEHATZAK ETA LAGUNTZA PROGRAMA ETA LERROAK.**

#### **1. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTUR DINAMIZAZIOA**

- Helburu estrategikoa:

Herriko kultur egiturari laguntza emateko, zabaldu eta sustatu, parte hartzen duten eragilearen profesionaltasuna bultzatuz eta kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

- Helburu zehatzak:

1.- Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

2.- Herritarrei oro har zuzendutako ondorengo diziplinetako sorkuntzara, ekoizpena eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea: musika, dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak eta abar.

3.- Gazteen parte hartzea lagundu, zabaldu eta sustatzea gazteentzako jarduerak antolatuz.

4.- Euskal historiaren eta kulturaren –bereziki, Eskoriatzakoarenak- balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak lagundu, zabaldu eta sustatzea.

5.- Euskaraz edo euskararen erabilera sustatzeko egindako programak edota jarduerak lagundu, zabaldu eta sustatzea.

- Exekuzio epea:

Urteroko deialdiak.

- Finantziario iturriak:

Udal aurrekontua, jarduerak planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Diru laguntzak emateko prozedura:

Lerro estrategiko hau exekutatzeko diru laguntzak norgehiagoka prozedura bidez edo aurrekontuan laguntza izendunak dituzten elkarteekin egindako hitzarmen bidez emango dira.

- Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau exekutatzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berariazko lankidetzak hitzarmen bidez egingo da ondorengo diru laguntza lerro bakoitzerako.

- Diru laguntza lerro zehatzak

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzan egingo diren programa eta kultur jardueretarako diru laguntzak.

HARTZAILEAK: Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

HELBURUA: Urtean zehar Eskoriatzan egiten diren kultur programa eta jarduerari diruz laguntzea.

LORTU GURA DENA: Herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintzea eta herritarren eta kultur elkarten parte hartzea eta lankidetzak sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 21.400 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.00.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Beheko Errota musikal eskola diruz laguntzako programa.

HARTZAILEAK: Beheko Errota musika eskola.

HELBURUA: "Beheko Errota" musika elkarte pribatuak aspalditik Eskoriatzan egiten ari den lana bultzatzea, eta eskoriatzarrei musika formazioa emateko eta musika zabaltzeko lanetan laguntzea.

LORTU GURA DENA: Musika eskola zerbitzua ematea eskoriatzarrei eta kontzertuak eskaintzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 40.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.326.10.01 partida

### C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ORRI-PUNTUAK AUKERATZEKO LEHIAKETA

HARTZAILEAK: Eskoriatzako herritarrak.

HELBURUAK: Datorren urtean, hau da, 2017an, udal bibliotekan erabiliko diren orri-puntuak aukeratzeko lehiaketa.

LORTU GURA DENA: Irakurzaletasuna sustatzea gizartean gehiago ezagutzera emanez biblioteka zerbitzua.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa. Lehiaketa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 150 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.332.10.01 partida

### D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: LEHIAKETAK.

HARTZAILEAK: Udalak antolatutako lehiaketetan parte hartu nahi duten eskoriatzarrak.

HELBURUAK: Antolatutako lehiaketetan herritarren parte hartzea sustatzea sariak zuzenean emanez irabazleei.

LORTU GURA DENA: Herritarrak aktiboak izatea eta parte hartzea kultur tradizioak indartzeko eta herriko kultur jardueri eusteko udalak antolatutako lehiaketetan.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa. Lehiaketa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 21.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.00.01 partida

### D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: FERIXA

HARTZAILEAK: Arizmendi Koop. Elkartea

HELBURUAK: Arizmendi Koop. Elkarteari diruz laguntzea urtero antolatzen duen Ferixak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Gastronomia, artisautza eta euskal folklorea protagonista dituen euskal feria tradizionala sustatu eta zabaltzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.431.10.01 partida

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ATXORROTX Kultur Elkartea

HARTZAILEAK: Atxorrotz Kultur Elkartea

HELBURUAK: Atxorrotz Kultur Elkarteari diruz laguntzea urtean zehar antolatzen dituen kultur jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Kultura, ohiturak eta euskara sustatzea eta zabaltzea. Jarduera egitea euskara presente egon dadin eguneroko bizitzaren arlo guztietan.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.30.01 partida

## **2. LERRO ESTRATEGIKOA: KIROL SUSTAPENA.**

- Helburu estrategikoa:

Herritar guztiei beraien kirol eskaera asetzeko aukera ematea eta bizi kalitatea hobetzeko jarduera osasungarriak sustatzea kirol erakunde, elkarte eta federazioekin elkarlanean arituz.

- Helburu zehatzak:

Ahalik eta jende gehienak kirola egitea sustatzea ohitura osasungarri eta gomendagarri bezala.

Elkartegintza sustatzea kirol antolaketa eta kirola egitearen ondorioak optimizatzeko modu bezala.

Herriko kirol elkarteekin elkarlanean aritzea jarduerak egiteko zein kirol instalazio sarea hobetzeko.

Lagatako kirol instalazioen kalitatea hobetzea eta herritarrek horiek erabiltzea.

Oinarrizko kirol federatua sustatzea kirol elkarteetan.

Eskola kirola sustatzea ikastetxe publikoetan eta hitzartutako pribatuetan.

Kirola kalean egitea sustatzea.

- Exekuzio epea:

Urteroko deialdiak.

- Finantziario iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera, ekarpen publiko edo pribatuekin osatu ahal izango direnak.

- Diru laguntzak emateko prozedura:

Norgehiagoka, eta zehazki, lerro zehatz bakoitzean adierazitakoa.

- Diru laguntza lerro zehatzak

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Leintz Eskola Kirola

HARTZAILEAK: LEK

HELBURUA: Urteetan Leintz Eskola Kirola beste udal batzuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eskualdean eskola kirola sustatzeko egiten ari den lana bultzatzea.

LORTU GURA DENA: Eskola kirola sustatzea 3. LH-tik 2. DBH-raino

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 13.300,69 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.10.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Kirol Elkartea

HARTZAILEAK: Eskoriatza Kirol Elkartea.

HELBURUA: Eskoriatzako Kirol Elkarteari diruz laguntzea kirol federatua sustatzeko ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Kirola egitea sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 25.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.20.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol elkarteentzako diru laguntzak.

HARTZAILEAK: Egoitza edota jarduera eremua Eskoriatzan duten herritar taldeak eta kirol elkarteak.

HELBURUA: Herriko irabazi asmorik gabeko kirol elkarteek eta taldeek urtean zehar egingo dituzten jarduerak diruz laguntzea. Azken helburua da kalitatezko kirol jarduerak eskaintzea herrian eta herritarren parte hartzea sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 5.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.00.01 partida

### **3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA**

- Helburu estrategikoa:

Eskoriatzarren bizi kalitate eta gizarte ongizate mailak igotzea.

Pertsonen, familien eta gizarte taldeen, batez ere bazterketa arriskuan baldin badaude, berri izateko eta hainbat egoera prebenitzeko eta esku hartzeko mekanismoak sustatzea.

Gizarte kalteberatasun egoeran dauden herritarren gizarteratzea sustatzea.

Herriko emakumeen eta hirugarren adinekoen elkarteek jarduera parte hartzaileak, prestakuntza ematekoak eta ludikoak antola dezatela sustatzea.

Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenak sustatzea eta elkarten eta erakundeen parte hartzea eta jarduerak bultzatzea arlo honetako udal eskuduntzak garatzerakoan eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Herri txiroenen garapenean laguntzea herritarren sentiberatasuna handitzeko ekimenak sustatuz eta bizi baldintzak hobetzen laguntzea elkartasunerako eta toki garapenerako proiektuetarako diru laguntzak emanez.

Hirugarren adineko pertsoneri arreta duina bermatzea egoitzan.

- Helburu zehatzak:

Gizarte zerbitzuetako baliabideei eta horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa ematea.

Gizarte kalteberatasun egoeran dauden kasuei oinarrizko beharrak, behar zehatz eta ezohikoak, norbanakoak eta familiakoak estaltzea.

Zailtasun edota gizarte arrisku egoera txikitzeko edo desagertzeko lan egitea.

Arazoak edo zailtasunak agertzea ekiditea, arrisku faktoreak antzemandakoan modu prebentiboan esku hartuz.

Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimena, erakundeekin jarduera koordinatua indartzea eta gizarte parte hartze aktiboa sustatzea.

Jubilatuen elkarteak eta emakumeen elkarteak jarduerak egitea sustatzea eta egoitzarako erabiltzen dituzten lokalak mantentzen laguntzea.

Herriko GKEei laguntzea beraien ekimen eta lankidetzeta proiektuetan herri pobreentzako eta garapen bidean daudenentzako ekarpen gisa.

- Exekuzio epea: Urteroko deialdiak.
- Finantziazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Diru laguntzak emateko prozedura:

Lerro estrategiko hau exekutatzeko diru laguntzak emateko prozedurak hauek izango dira: norgehiagoka, aurrekontuan izenarekin agertzen diren erakundeekin hitzarmen bidez tramitatuta eta interes sozial, ekonomiko edo humanitarioarengatik zuzenean emateko laguntza lerroak.

- Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau exekutatzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berariazko lankidetzeta hitzarmen bidez egingo da ondorengo diru laguntza lerro bakoitzerako.

- Diru laguntza lerro zehatzak

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Udalaren eta Olazar jubilatuek elkartearen arteko hitzarmena.

HARTZAILEAK: Olazar jubilatuek elkarteak.

HELBURUA: Olazar jubilatuek elkarteari diruz laguntzea beraien ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako nagusien bizi kalitatea hobetzea eta herrian parte hartze handiago izan dezatela sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.337.10.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Udalaren eta Amuska Emakume Taldearen arteko hitzarmena.

HARTZAILEAK: AMUSKA EMAKUME TALDEA



HELBURUA: AMUSKA EMAKUMEEN TALDEARI diruz laguntza genero berdintasuna sustatzeko beraien ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Amuska Emakumeen Taldeak Eskoriatzako Udalak antolatutako kultur jardueretan izaten duen ohiko parte hartzea koordinatzea eta sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.231.50.01 partida

c) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: GKE-EI LAGUNTZAK.

HARTZAILEAK: Beraien jarduera programaren helburuarekin bat etorri eta Eskoriatzan egoitza duten edota jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakunde edo elkarteak (GKE).

HELBURUA: Gobernuz kanpoko erakundeei diru laguntzak ematea garapen bidean dauden herrietako biztanleen baldintza sozioekonomikoak hobetzera zuzendutako garapenerako lankidetzak programak gauzatzeko.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan presentzia duten gobernuz kanpoko erakundeen bidez lankidetzak proiektuen garapenean laguntzea, eta era berean, herritarren artean boluntarioratza sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 5.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.20.01 partida

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Tratamenduak jasotzeko diru laguntzak.

HARTZAILEAK: substantzia batekiko edo bestelako menpekotasun bat duten herritarrak.

HELBURUA: Tratamendua jasotzeko bidaia gastuak ordaintzea.

LORTU GURA DENA: Drogamenpekotasuna duten eskoriatzarrei osatzeko tratamendua eskuragarri egitea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.231.60.01 partida

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Beraien jarduera gizarte ekintzak egiten duten elkarteentzako diru laguntzak.

HARTZAILEAK: Beraien jarduera Eskoriatzan egiten duten edo eskoriatzarrak hartzen dituzten edo eskoriatzarrei zerbitzuak ematen dizkieten legez eraturako eta dagozkion erregistro publikoetan inskribatutako eta programa honetako helburuarekin bat datozen elkarteak.

HELBURUA: Beraien jarduera gizarte ekintzaren arloan egiten duten elkarteei diru laguntzak ematea beraien funtzionamendu gastuetarako zein beraien elkartearen jardueraren xede diren taldeei zuzendutako programa zehatzak egiteko edota zerbitzuak emateko.

LORTU GURA DENA: Administrazioaren gizarte ekintzaren lan osagarriak egiten dituzten elkarten jarduerak sustatzea eta elkarte horiek herrian izatea bultzatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 4.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.00.01 partida: 3.000 €

0300.481.231.60.01 partida: 1.000 €

F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Diru laguntza: Larrialdi plana.

HARTZAILEAK: behar beste baliabiderik ez duten herritarrak.

HELBURUA: diru laguntza ematea premia egoeran daudenei.

LORTU GURA DENA: Gizarte talde ahulenen oinarrizko beharrei erantzutea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 35.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0301.481.231.30.02 partida

#### G) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Kaleratzeak STOP

HARTZAILEAK: Kaleratzeak STOP

HELBURUA: Kaleratzek STOP taldeari laguntza ematea etxegabetuei laguntzeko beraien ohiko jarduerarako.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan egon daitezkeen etxegabetzei erantzun bat ematea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0301.481.231.80.01 partida

#### H) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JOSE ARANA PATRONATUARI DIRU LAGUNTZA

HARTZAILEAK: Jose Arana patronatuaren fundazioa.

HELBURUA: Egoitzan egingo diren obrak finantzatzea.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonen. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 8.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0301.781.231.90.01 partida

#### **4. LERRO ESTRATEGIKOA: ALKATETZA.**

- Helburu estrategikoa:

Udal taldeei Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 73.3 artikuluan aurreikusitako diru zuzkidura bermatzea.

Erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea eta udalaz gairikoa duten programak garatzen laguntzea.

- Helburu zehatzak:

1.- Aurrekontu kreditua izendatzea udal taldeei diruz laguntzeko.

2.- Ondare historikoa gordetzen eta mantentzen laguntzea.

- Exekuzio epea:

Urterokoa.

- Finantziazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Diru laguntzak emateko prozedura: Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.

- Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau exekutatzeko jarduera plana aurrekontu exekuzio araudian ezarritako irizpideen arabera egingo da.

Diru laguntza lerro zehatzak

#### A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: TALDE POLITIKOEI ESLEIPENAK

HARTZAILEAK: Udal taldeak.

HELBURUA: Udal taldeei Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 73.3 artikuluan aurreikusitako diru zuzkidura.

LORTU GURA DENA: Taldeen funtzionamendua finantzatzeko laguntzak.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Zuzenak:

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 9.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0200.481.912.00.01 partida

#### B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: DORLETAKO SANTUTEGIRAKO DIRU LAGUNTZA (teilatuko obrak)

HARTZAILEAK: Dorleta santutegiaren lagunak.

HELBURUA: Santutegiko teilatua konpontzeko obrak finantzatzea.

LORTU GURA DENA: Eskualdeko ondare historikoa gordetzen eta mantentzen laguntzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0200.781.231.90.01 partida

## **5. LERRO ESTRATEGIKOA: EUSKARA**

- Helburu estrategikoa:

Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea Eskoriatzan.

- Helburu zehatzak:

Adin nagusiko Eskoriatzarrei euskara ikasteko erraztasunak eskaintzea.

Euskarazko errefortzuak eskaintzea 16 urtetik beherako ume etorkinei herriko bizitza sozialean eta irakaskuntza arautuan –non komunikazio hizkuntza euskara den-integrazio handiagoa lortzeko.

Merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzea.

Gazteak aktibatzea eta motibatzea hainbat arlotan euskara erabiltzeko.

Eskoriatzan euskararen erabilera normalizatzeko udal jarduera zehatzetan laguntzea.

- Exekuzio epea:

Urterokoa.

- Finantziazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Diru laguntzak emateko prozedura:

Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.

- Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau exekutatzeko jarduera plana diru laguntza lerro bakoitzerako dagokion deialdirako oinarrien bidez eta aurrekontuan agertzen diren izendun erakundeekin hitzarmenak tramitatuta egingo da.

- Diru laguntza lerro zehatzak

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Euskara ikasteko diru laguntzak.

HARTZAILEAK: Euskaltegian matrikulatuta egon eta Eskoriatzan erroldatuta daudenak.

HELBURUA: Euskara ikastaroak finantzatzeko diru laguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Euskararen ezagutza sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 2.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.335.00.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Esaldi lehiaketa herriko jaietan.

HARTZAILEAK: San Pedro jaietako esaldi lehiaketako saridunak.

HELBURUA: Euskararen erabilera jaietan sustatzea, bereziki gazteen artean.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 300,00 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.335.00.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Hizkuntz errefortzutarako diru laguntzak.

HARTZAILEAK: Haur hezkuntza edo lehenengo hezkuntzako 4. mailara arte ikasten ari diren eta beraien adinerako behar besteko euskara mailarik ez duten Eskoriatzako ikasleak.

HELBURUA: Hizkuntz prestakuntza ematea euskararen ezagutzan eta erabileran zailtasunak dituzten ikasleei.

LORTU GURA DENA: Ikasleei behar besteko euskara maila ematea beraien ikasketak behar besteko ezagutzarekin jarraitu ahal izateko, eta gainera, horrek herriko bizitza sozialean integratzen lagunduko die.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Laguntza jenerotan emateko deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 2.700,00 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.335.00.01 partida

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Goiena Komunikazio Koop.E.-ri diru laguntza.

HARTZAILEAK: Goiena Komunikazioa Koop.E.

HELBURUA: Debagoieneko gainerako udalekin batera eta Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak emandako laguntzekin Goiena Komunikazio Koop. Elkarreak euskarazko komunikabideen arloan egiten dituen jarduerak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Euskararen normalizazioa eta sustapena, eta horrekin batera, Debagoieneko herritarrei herriko gaien gaineko jardura publiko zein pribatuei buruzkoa informazio eguneratua, askotarikoa, objektiboa eta kalitatezkoa ematea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 20.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.491.00.01 partida

## **7. LERRO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA SUSTATZEA**

- Helburu estrategikoa:

Herrian hezkuntza berrikuntza sustatzea eta kultur eskaintza hobetzea herritarrei, orokorrean, zuzendutako hezkuntza, kultura, berdintasuna, ingurumen dibertsitatea eta inklusibitatea bultzatzeko jardura eta proiektuen bidez. Herriko ikastetxeen mantentze-lanetan ere laguntzea.

- Helburu zehatzak:

Hezkuntza arautuaren eremuan Eskoriatzan ari diren irabazi asmorik gabeko ikastetxeen jarduerak eta proiektuak finantzatzeko diru laguntzak ematea.

Exekuzio epea:

Urterokoa.

Finantziario iturriak:

Udal aurrekontua, jardura planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

Diru laguntzak emateko prozedura:

Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.

Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau exekutatzeko jarduera plana diru laguntza lerro bakoitzerako dagokion deialdirako oinarrien bidez eta aurrekontuan agertzen diren izendun erakundeekin hitzarmenak tramitatuta egingo da

Diru laguntza lerro zehatzak

**A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Arizmendi ikastola kooperatibarekin hitzarmena.**

HARTZAILEAK: ARIZMENDI ikastola.

HELBURUA: Arizmendi ikastolari diru laguntza mantentze-gastuei aurre egiteko.

LORTU GURA DENA: Arizmendi ikastolaren azpiegituren mantentze-lanetan laguntzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 8.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.324.00.01 partida

**B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Luis Ezeiza Herri Eskolak antolatutako jarduerak.**

HARTZAILEAK: Luis Ezeiza Herri Eskola

HELBURUA: Ikastetxeak 2016an programaren jarduera lerro estrategikoaren helburu estrategikoekin bat etorrira egingo dituen jarduerak eta ez ohiko proiektuak finantzatzeko puntualki laguntzea.

LORTU GURA DENA: Ikastetxeak proposatutako jarduerak egingo direla bermatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.323.40.01 partida



**C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Arizmendi Ikastolak antolatutako jarduerak.**

HARTZAILEAK: Arizmendi Ikastola

HELBURUA: Ikastetxeak 2016an egingo dituen jarduerak eta proiektuak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: - Ikastetxeak 2016an programaren jarduera lerro estrategikoaren helburu estrategikoekin bat etorrira egingo dituen jarduerak eta ez ohiko proiektuak finantzatzeko puntualki laguntzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.324.00.01 partida

**8. LERRO ESTRATEGIKOA: SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA SOZIALA**

- Helburu estrategikoa:

Eskoriatzan garapen ekonomiko jasagarria eta enpleguaren sustapenaren alde egitea herritar guzien bizi kalitatea eta ongizatea igotzeko.

- Helburu zehatzak:

Enplegua sortu eta baliabideen jasagarritasuna bermatzen duten enpresa proiektuak hazten eta finkatzen laguntzea.

Kalitatezko enpleguaren sorpena sustatzea.

Ekintzailatza dinamizatzea herrian.

Gertuko merkataritza dinamizatzea eta sustatzea.

Eskoriatza sustatzea bidaia-antolatzaile publiko eta pribatuekiko loturak indartuz eta eskaintzaren berrikuntza eta dinamismoa sustatuz.

- Exekuzio epea:

Urterokoa.

- Finantziazio iturriak:

Udal aurrekontua, jardura planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Diru laguntzak emateko prozedura:  
Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.

- Jarduera plana:  
Lerro estrategiko hau exekutatzeko jarduera plana diru laguntza lerro bakoitzerako dagokion deialdirako oinarrien bidez eta aurrekontuan agertzen diren izendun erakundeekin hitzarmenak tramitatuta egingo da

- Diru laguntza lerro zehatzak

#### A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: GARAPEN SOZIALA ETA JASANGARRIA

HARTZAILEAK: Lanpostu bat edo gehiago sortzea ekarriko duen eta martxan dagoen jarduera batekin batzeko izango ez den jarduera ekonomiko baterako proiektu bideragarriak aurkezten dituzten Eskoriatzan erroldatutako pertsona fisikoak.

HELBURUA: Eskoriatzan enplegua sortuko duten enpresa ekimen berriei diru laguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Enplegua sustatzea eta enpresa jarduera sustatzea herrian.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 14.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.481.433.30.01 partida

#### B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: TURISMOA.

HARTZAILEAK: Eskoriatzaren irudia kanpoan zabaltzen laguntzeko proposamenak aurkeztuko dituzten Eskoriatzako pertsona fisikoak edo elkarteak.

HELBURUA: Turismo arloan eta Eskoriatzaren sustapenean eragina duten ekimenei diru laguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako irudia kanpoan zabaltzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 900 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.481.432.00.01 partida

### C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: MERKATARITZA

HARTZAILEAK: Eskoriatzako merkatariak.

HELBURUA: Merkataritza herrian sustatzeko eta dinamizatzeko ekimenei diru laguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Kontsumoa Eskoriatzan bertan dinamizatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 8.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.481.431.00.01 partida

### **8. LERRO ESTRATEGIKOA: LANDA GUNEEN SUSTAPENA.**

- Helburu estrategikoa:

Elizateetako bizilagunen bizi kalitatea hobetzea eta sistema orokorrak eta talde ekipamendu komunitarioak erabili ahal izatea bermatzea.

- Helburu zehatzak:

Argiteria sistema hobetzea.

- Exekuzio epea:

Urterokoa.

- Finantziazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

- Diru laguntzak emateko prozedura:

Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.

- Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau exekutatzeko jarduera plana diru laguntza lerro bakoitzerako dagokion deialdirako oinarrien bidez eta aurrekontuan agertzen diren izendun erakundeekin hitzarmenak tramitatuta egingo da

- Diru laguntza lerro zehatzak

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: BASERRIETAKO ARGITERIA

HARTZAILEAK: Landa gunetako egoitza-higiezinaren titularrak.

HELBURUA: Landa gunetako egoitza-eraikinetarako sarbideetan argiteria jartzeko diru laguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Landa gunetako argiteria hobetzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Norgehiagokarik gabeko deialdi publikoa.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 10.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0100.481.165.00.01 partida

## **PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2016-2019**

### **PREÁMBULO**

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que tiene carácter básico, establece que *"Los órganos de la Administración o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria"*

La disposición adicional decimotercera de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, establece que los Planes y Programas relativos a políticas públicas que estén previstas en Normas legales o reglamentarias tendrán la consideración de Planes estratégicos de Subvenciones o recogerán el contenido previsto en el art. 8.1.de la Ley 38/2003.

La Ley General de subvenciones supone un paso más en el proceso de perfeccionamiento y racionalización del sistema económico. Uno de los principios que rige la Ley es el de la transparencia que redundará de forma directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público subvencional.

En este sentido, una mayor información acerca de las subvenciones hará posible eliminar las distorsiones e interferencias que pudieran afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones Públicas evitando cualquier tipo de solapamiento.

Para mejorar la eficacia, se prevé en la legislación que se proceda a elaborar un Plan Estratégico de Subvenciones, de carácter plurianual y con carácter previo al nacimiento de las subvenciones, y con las revisiones que sean necesarias hacerse anualmente.

Por ello, este Ayuntamiento aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones cuyo articulado figura a continuación.

El presente Plan estratégico ha sido elaborado con la participación de todas las Áreas, Servicios y unidades responsables de la gestión de subvenciones en el Ayuntamiento de Eskoriatza



## **CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES**

### **Artículo 1. Naturaleza jurídica**

Los Planes Estratégicos de Subvenciones son un instrumento de gestión de carácter programático, que carece de rango normativo, que no supone una incidencia directa en la esfera de los particulares, ni su aprobación genera derechos ni obligaciones para la administración.

Su efectividad queda condicionada a la aprobación de las correspondientes bases y convocatorias de las diferentes líneas de subvención, así como de las disponibilidades presupuestarias de cada ejercicio.

### **Artículo 2.**

La concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Eskoriatza durante el periodo 2016-2019 se ajustará a la Ley General de Subvenciones, al presente Plan, a los correspondientes convenios y a las Bases de las convocatorias anuales de las subvenciones.

El órgano competente para la aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones, es el Ayuntamiento en Pleno, dado que se trata de un instrumento de planificación estratégica de la actividad subvencional o de fomento y de gestión económica, de acuerdo con lo previsto en el apartado g) del artículo 127 de la Ley de bases de Régimen Local.

### **Artículo 3. Ámbito subjetivo**

El presente Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza incluye las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Eskoriatza desde sus diversas Áreas.

El Ayuntamiento de Eskoriatza concederá subvenciones a favor de personas, asociaciones o entidades privadas con la finalidad de fomentar la realización de actividades de utilidad pública e interés social o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la competencia municipal.

La aprobación del presente Plan Estratégico de Subvenciones no supone la generación de derecho alguno en favor de los potenciales beneficiarios, que no podrán exigir

indemnización o compensación alguna en caso de que el Plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

#### **Artículo 4. Aspectos estratégicos del Plan**

##### 4.1.- Misión

Representa la razón de ser del conjunto de la actividad subvencional del Ayuntamiento:

"Impulsar, promover y potenciar la participación de la sociedad civil estructurada de nuestro municipio en los distintos ámbitos de gestión municipal de interés concurrente así como promocionar la inclusión social de los individuos mediante ayudas económicas a aquellos ciudadanos que se encuentren en determinadas situaciones de vulnerabilidad social en defensa del principio de igualdad de oportunidades".

##### 4.2.- Principios Generales

La regulación jurídica en materia de subvenciones, así como de las administraciones públicas, establece unos principios generales de actuación, que son elementos fundamentales del Plan Estratégico y que deben regir la gestión municipal en materia de subvenciones.

